

nahi berekoak izatez aparte, oroi hor izan zitekeala erromatarren *Tritium Tuboricum* inon izatekotan ere, ibaiko nasen gaineratik eta Aizkoltxo muinoaren babesean. Baina, hau egiztatzeko azterketa zehatzagoa behar han, *in situ*. Zeren ibaiaren bi alderdietan *zabal* eta *plaza* aurkitzeak aintzinako zerbait adierazten digu.

Baina, denen gaineratik, lekuizena gordetzea agiri zaharra bezala da, eta gutien uste denean beharrezko agiria.

J. S. M.

EZ DA TXORIBURUKERIA.—Azken bolada honetan, Bizkaian eta Gipuzkoako mendebaldean hain oparotsu erabiltzen den *garaun* eta *garun* (cerebro) ordez, hedakunde gutiagoko, *burumuiñ*, Baztan eta Alduden esagutzen dena, gure literatura zabaltzen ari da, *burmuin* bezala. Hobeago ez den *buruko-muin* eta horrelakoak ere irakurri izan ditugu. Izan ere, hautapen hauek dira gure burukominak.

Arazo horretan gauza bat dago garbi bizkaitarren alde: *muin* (tuétano) gauza bat dela eta *garaun* (cerebro) beste bat. Berezkuntza garbia da.

Donostiarrentzat, aldiz, *burmuin*, itsas-belea da, (cormoran). Baina donostiarrek ez dute ez itsas-txoririk eta ez bes-telakorik beren buruan. Kaxkarinak direla esan ohi dute, baina ez txoriburuak.

Eibartarron usterik ez dut agertu gura, zeren armaginen hirian *garun* (cerebro) bai da eta horren tokia edo tegia, buru-kasko barnea, *garuntegia* (cavidad cerebral). Burmuinetik zer irtengo den ezin jakin ordea.